



LEHENENGO ETXE ABEREA

A

Gero, emakumea belarra lehortzen hasi zen. Etxolako teilatua egin behar zuen belar horrekin. Zaldi basati batek belarraren usaina hartu eta honela esan zion emakumeari:

–Zein usain ederra! Emadazu belar pixka bat.

Eta emakumeak erantzun:

–Nahi adina emango dizut. Baina basati izateari uzten badiozu. Guri lagundu eta gainean eramango gaituzu. Zaldiak onartu egin zituen baldintzak eta etxola ondoan geratu zen lastoa jaten.

B

Duela milaka eta milaka urte, animalia guztiak basatiak ziren.

Gizonak ehizatzaera joaten ziren eta emakumeak etxoletan geratzen ziren haragia erretzen.

D

Ehiztaria etxeratu zenean, zera esan zuen:

–Zer egiten dute hemen txakur basatiak eta zaldi basatiak?

Eta emakumeak erantzun:

–Animaliok ez dira jada basatiak. Txakurrak ehizan, lagunduko digu eta zaldiak edonora eramango zaitu.

Ehiztaria sutondoan eseri zen, lagunaren argitasunaz harro.

E

Behin batean, txakur basati batek haragi errearen usaina hartu eta honela esan zion emakume bati:

–Zein usain ederra! Emadazu haragi pixka bat.

Eta emakumeak erantzun:

–Nahi adina emango dizut. Baina basati izateari uzten badiozu. Ehizatzen lagundu eta etxea zainduko duzu.

Txakurrak onartu egin zituen baldintzak eta etxolan geratu zen haragia jaten.



1



2



3



4